

## Argiena eta argitsuena

**A**rgitzen lehena da eta, aidanean, diztiratsuenetakoa ere bai. Artizarren inguruan datu-bilketan aritu den Magallaes-en radarrak bildu duen informazioak Artizarren igortzen duen argi misteriotsuari buruzko argibideak eman-



Itxura guztien arabera, metalez osaturiko geruza mehe batek estaltzen ditu Artizarreko mediak. Radarrak bidali dituen irudietan argia isladatzen duen "zerbait" ageri zen.

go dituelakoan daude ikerlariak. NASAk burutu duen azken ikerketa-proiektu honen bultzatan, Magallaes-en radarrak oso irudi bitxiak plazaratu ditu. Artizarren inguruan dauden hodei trinkoak gairiditu ostean, azaleraren azterketa xehetua egin ahal izan du. Itxura guz-

tien arabera, metalez osaturiko geruza mehe batek estaltzen ditu Artizarreko mediak. Radarrak bidali dituen irudietan argia isladatzen duen "zerbait" ageri zen. Izotza badirudi ere, aukera hau erabat baztertu behar dela diote ikerlariak, Artizarren atmosfera beroegia delako. Argi misteriotsuaren fenomenoaz azaltzeko, toki menditsuatan atzeman diren gas-ho-

deiak ere oso kontuan izan behar dira. Era honetako hodei trinkoak, izan ere, sumendiak "lanean" ari direla salatzen dute. Massachusetts-eko Teknologia Institutuko ikerlariak diotenez, Magallaes-en radarrak jaso dituen diztirak "eroen urrea" edo pirita asko duen geruza batek sortu ditu. Washingtongo Unibertsitateko ikerlarien ustez, ordea, pirita ezezik, sumendiek sorrarazten dituzten gasak ere zerikusi handia dute radarrak jasotako irudietan azaltzen diren islada horietan.


## Gogorren artean, gogorrena ez da diamantea

**D**iamantea baino gogorragorik ba ote dago?. Galderaren erantzuna ezetza biribila da EEBBtako ikerlari-taldeak egin berri duen iragarpena ezagutzen ez duen edonorentzat. Izan ere, diamantea baino gogorragoa den substantzia, *β*-karbono nitruroa, lortu dutela adierazi zuen Yip-Wah Chung ikerlari-taldeko buruak.

Iragarpenaren jatorria 1980ko hamarkadan abiarazi ziren ikerketak dira. Orduan, diamantea baino gogorragoak izan zitezkeen kristalen egitura aztertzeari ekin zioten. Boro nitruoren portaerak frogatu zenez, kristal oso gogorak lortzeko bidea eskaini zezakeen ikerketa horrek. Diamantea bai-

no gogorragorik ez zen, ordea, lortu. Alabaina, laborategian egindako saioek gerora emaitza bikainak eman zituen formula ekarri zuten. Egindako saioetan frogatu ahal izan zuten, *β*-karbono nitruroak diamantearen gogortasun-maila gandi zezakeen kristal bakarra da. Kristalizatu gabeko karbono nitruroa lortzea ez da batere zaila. Kristalaren kasuan, ordea, zailtasunak uste baino handiagoak izan ziren. Bazurdiaren karbono eta nitrogeno atomoek ez zutela kristal-egiturarik sortu nahi. Azkenean lortu bada, ikerlari iaioen lan saiatuari esker gertatu dela esan daiteke. Laborategian, oinarri solido baten gainean karbono eta titanioa kokatu zituzten. Bi elementu hauen gainean nitrogeno-molekulak jaurti zituzten, biek nahas zitezkeen. Lortutako emaitzak bi elementu berriak biltzen zitu-

Egindako saioetan frogatu ahal izan zuten, *β*-karbono nitruroak diamantearen gogortasun-maila gandi zezakeen kristal bakarra da. Ustea ez da oraingoan ustela gertatu.





en, karbono nitruro eta titanio nitruro, hain zuzen. Biak oso elementu gogorak dira eta, horra hor ustekabea, biak elkartzean diamantea baino gogorragoa den sustantzia lortzen dela frogatu ahal izan dute. Iragarpenak mesfidantza sorrarazi du kimikarien artean. Lortutako kristala ezpurutasunaz garbitzeak luze joko duela eta honek bere erabilpen-eremua mugatuko duela diote. Materiala masiboki ekoiztea lortuz gero, ordea, berebiziko aukera eskainiko du diamanteen mepean garatu diren iharduera industrialak burutzeko eta, jakina, diamanteak berak gauzaterik ez dituen prozesuak egin daitezela. Momentuz esan dezakegun gauza bakarra zera da: gogorren artean gogorrenari bere neurriko arerioa azaldu zaiola.

Gizonentzako pilula antisorgailuaren bila

**P**ilula antisorgailuaren erabilera normaldu zenez geroztik, emakumearen askatasunerantz urrats garrantzitsua eman zela sarritan entzun izan dugu. Oraingoan, gizonek izango ei dute norabide berean aurrera egiteko aukerarik. Londresko King's College Ikerketa Zentruko ikerlariak uste dutenez, arras ezagunak diren bi drogak



Ezagunak diren bi drogak erabiliz lor daiteke gizonek hartuko luketen pilula antisorgailua. Feroxybenzamina eta tiordazina substantziek eiakulazioa atzeratu eta zenbait kasutan gerarazten dutena aspalditik dakite ikerlariak. Azterketa berriek pilula antisorgailuaren balioa baieztatu dute.

erabiliz lor daiteke gizonek hartuko luketen pilula antisorgailua. Fenoxibenzamina eta tiordazina substantziek eiakulazioa atzeratu eta zenbait kasutan gerarazten dutena aspalditik dakite ikerlariak. 1950-eko hamarkadan egin ziren lehen azterketak eta lortutako emaitzek bi eratako erreakzioak atzeman zituzten. Eiakulazioa atzeratzea lortu bazen ere, bigarren mailako ondorio kaltegarriak ere sortzen zutela frogatu zen. Besteak beste, antsietatea eta depresioa areagotu zirela diote garai hartako ikerketa-txostenek. 1984an Israelen egin ziren ikerketek bi substantziak nahasiz bigarren mailako eraginak saihestea lortu zuten. Eiakulazioa gerarazi eta orgasmo "lehorrak" lortu zituzten. Ikerlariak diotenez, prozesua era kontrolatuaz buru-

tzea lortuz gero, aho-antisorgailuak merkaturatzea izango da hurrengo pausoa.

Piratak gene-maparen bila

**G**aur egun sendaezintzat jotzen diren gaixotasun askoren etorkizuneko irtenbidea gene-maparen deskribapen xehetuan datza. Teoria askoren arabera, iturburu jakinik gabeko gaixotasunen gakoa norberaren geneetan egon liteke eta berau ezagutzea lortzen ez den bitartean, ezingo omen da soluziobiderik eskaini. Iritziak iritzi, ikerlarien ahaleginak norabide honetan doaz eta urte gutxi barru gene-maparen ezagutza normaltzat joko dela uste dute. Horretarako pausoa askok

uste baino azkarrago ari dira ematen eta Merck&Co. Konpainiak egin duen iragarpene betetzekotan, aurki ikusi eta eskuarteaz izango ditugu azken bost hilabete hauetako ikerketen emaitzak: 15.000 gene-sekuentzia.

Orain dela 5 hilabete Merck&Co. farmazia-laborategiko eta Missouriko Washington Unibertsitateko ikerlariak sutzuki ekin zioten lanari. DNA identifikatzea eta gene-sekuentziak horren arabera osatzeko buruhauste asko sortu du, baina azkenean lortu dute hainbeste itzarotako sekuentzia osatzea. Ikerketarako bide berria ireki duela eta, Merck Gene Index izenaz bataiatu duten programak 300.000 gene-sekuentzia identifikatu nahi ditu. Lortuko diren emaitzak Genbank Ikerketa Zentru nagusian aztertuko dira, zehazki gene-garapeneren sekuentziak ikeritzen dituen sailean zerrendatuko dituztelarik. Horretarako, 18 hilabete epea izango dute Merck&Co.koek. Aitzitik, albisteak ez du lortu askok espero zuten oihartzun zabala. Mesfidantza nagusitu da ikerlarien artean. Ikerketa Genetikorako Institutuak lortuko dituen emaitzak nork eta nola baliatuko dituen argitzen ez den bitartean, legearen kontra ezekiz, etikaren aurka ere joko dutela agertu dute ikerlariak.

